

## GIL 72 Mañuetako ibai-terrazak



T1, T3 eta T4 terrazen bista.

### Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 31' 11,86" N  
Long.: 2° 41' 46,08" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 524.959,53 m  
Y: 4.707.554,13 m



### Nola iritsi

Ebro ibaiak, Mañueta herritik igarotzean, ibaiaren Kuarternarioko dinamikaren eboluzioari lotutako etapa batzuetako terraza-mailak ditu. Terrazak ikusteko tokirik onenetara iristeko, Mañuetatik abiatzen diren errepideak hartu behar dira: A-3224, San Vicente de la Sonsierarantz; LR-318, ibaia gurutzatu eta Torremontalborantz joanda; eta A-4205, Eltziegorantz. Errepide horietatik abiatzen diren bide asko ere egokiak dira: terrazetatik igarotzen dira, eta aukera ematen dute agregakinak erauzteko egindako ebakidurei behatzeko.



T3 terrazaren xehetasuna.

## Deskribapena

Ebro ibaiaren jarduerak ibai-terraza batzuk sortu zituen Kuarternarioan, eta, Arabako Errioxari dagokionez, 9 mailako sekuentzia bat da. Sekuentzia hori, ordea, oso gutxitan egoten da, osorik. Maila batzuk bakarrik aurkitzea izaten da ohikoena. Alde horretatik, nabarmentzekoa da hemen aztertutako GilLa, ibai-sekuentziarik osoenetako bat baitu. Ebroren haranean dago, Mañueta herritik hurbil.

Terrazek ezaugarri hau dute: maila horizontalak osatzen dituzte, batzuk oso ondo kontserbatuak, haiek sortu zituen ibaiaren bideen ertzetara itsatsiak. Normalean, *meandro-barra* zaharrak izaten dira, meandro zaharren ertz konbexuetan metatuak, eta esekita eta gaur egungo ibai-saretik deskonektatuta geratu dira. Maila alubialen eboluzioak ezaugarri hau du: sedimentazio-aldiak eta beste era batekoaldiak txandakatu dira, zeinetan intzisia nagusitzeak ekarri baitu lautada alubial zaharrak deskonektatzea eta beren ibilgu zaharrekiko altimetrikoki esekita geratzea.

Terraza-metakin askotako ebakiduretan, era bateko edo besteko ibai-faziesak ikus daitezke. Bi ibilgu-laburtze mota bereiz daitezke: ur-goraldiko kanaleko laburtzeak (*chute cut-off*) eta lepoko laburtzeak (*neck cut-off*). Azken horietan, lepokoetan, meandroaren lepoa itxi egiten da ibilgu berri bat —zuzena eta aldapa handiagokoa— sortzen denean. Hala, jatorrizko ibilgua alde batera uzten da, eta ibai-beso hil bat (*oxbow bat*) sortzen da.

## Behatzeko punturik onena

*In situ*, errepidetik ikus daitezkeen ebaki batzuetan.

## Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 55, GIL 80, GIL 53, GIL 30.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 55, GIL 71.

## GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
<b>Interes zientifikoa</b>	Geomorfologikoa			●	
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafiko/Sedimentologikoa			●	
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
<b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b>			Iraganean	Potentziala	Martxan
<b>Interes kulturala:</b>					
<b>Oharrak:</b>					

## Bibliografia espezifikoa

- Peña, J. L. eta Julián, A. (1994). "La Depresión del Ebro". In: Geografía de La Rioja. Editoreak: García-Ruiz, J. M. eta Arnáez, J. Caja de Ahorros de La Rioja, 85.-94. or.
- Soria Jáuregui, A., González Amuchástegui, M. J., Mauz, B. eta Lang, A. (2010). "Actividad fluvial holocena en la Cuenca de Miranda de Ebro (Burgos-Alava)". In: Avances de la Geomorfología en España, 2008-2010. Editoreak: Úbeda X., Vericat, D. eta Batalla, R. 421-425.